



EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK 2024ko DEIALDIA

SARRERA

Getxoko bizitza sozialean ohiko bihurtu dira euskal kulturatik eratorritako zenbait jaialdi. Jaialdi hauek herriko elkarteek antolatzen dituzte eta ikusle, entzule edo eta parte hartzaile kopuru handia izaten dute. Jaialdi hauen helburua getxotarren artean Euskal kulturako adierazpide batzuk ezagutzera ematea da; hala nola Olentzeroa; pertsonaia oso ezaguna eta errotua gaur egun eta neguko solstizioaren etorrerarekin lotzen dena, baita San Juan Korrika eta abar.

Getxoko hainbat elkartek, erakundek, enpresak... euskara edo euskal kultura sustatzeko ekintzak burutzen dituzte. Getxoko ESEPEk jasotzen duen moduan, Udalak interesa du eragile horiek lokal egokiak izan ditzaten euren jarduerak burutzeko.

Kontuan izanda Getxoko ESEP, Erabilera Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoak, ere helburu berdinak bilatzen dituela, hemen diruz-lagunduko direnak ESEPen jasotako helburuak betetzeko ekintza baliagarriak dira.

Oinarri orokor hauen lege-oinarriak ondorengoak dira: Dirulaguntzen inguruko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipatu Legearen Erregelamendua onartzen duena; eta 2021eko abenduaren 23an Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Dirulaguntzak Ematea Araupetzeko onartutako ordenantza (2022ko martxoaren 16ko 52 zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

6. dirulaguntza ildoak: **Getxoko gazteei** Euskal Herria eta euskal ondarea ezagutzera emateko laguntza, berria da eta Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan aurreikusita dago "3. *Euskara eta euskal kultura bultzatzea helburu duten ekitaldiak sustatzea*" atalean.

1.- LAGUNTZAREN HELBURUA

Indarrean dagoen Erabilera Plan Estrategikoan (ESEP) jasotako zenbait helburu lortzeko egokiak diren ekintzak antolatu edo garatzen dituzten hirugarren pertsona edo elkarteak diruz laguntzea.

2.- DIRULAGUNTZA ILDOAK

Honako hauek izango dira dirulaguntza ildoak:

3. ildoak: auzoetako **Olentzeroak** antolatzean sortzen diren gastuetan laguntzea.

3.- NOR LAGUNDUKO DA

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute Getxon helbide soziala duten irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko nahiz juridikoek. Jarduera bakoitzerako eskaera bakarra lagunduko da.



4.- ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA, BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA ETA EPEA

ESKAERAK: eskaerak Udaleko bulego elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira: [Getxoko egoitza elektronikoa](#).

DOKUMENTAZIOA

- **01.- Pertsonaren NANaren kopia** edo **erakundearen IFKren kopia** (bakarrik lehen aldiz eskatzen dutenentzat).
- **02.- Erakundearen estatutuen fotokopia** (bakarrik lehen aldiz eskatzen dutenentzat).
- **03.- AURREKONTUA:** jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen eta sarrerren gaineko aurrekontu xehatua. Aurrekontu horretan zehaztuko da, halaber, jarduera horiek egiteko laguntza zein erakunde publiko edo pribaturi eskatu zaion eta nork eman duten, emandako zenbatekoarekin batera.
- **04.- EGITASMOA:** egin beharreko jardueraren edo jarduerari buruzko proiektua.
- **05.- UDALARI ESKATZEN ZAION AZPIEGITURA** (bakarrik San Juan, Korrika eta Olentzeroetarako).
 - Jarduerak burutzeko Udalari eskatzen zaizkion azpiegiturak.
 - Ekitaldietako egunetan aparkatzeko baimena: ibilgailuen marka eta matrikulak, zein kaletan aparkatuko duten, egunak eta ordutegiak.
- **06.- LOKALAREN EZAUGARRIAK** (bakarrik lokalari buruzko eskaeretarako, 1. ildoak).
- **07 eta 08.- Gizarte Segurantzarekin eta Foru Aldundiarekin ZORRIK EZ IZATEAREN ZIURTAGIRIAK:** eskatzaileak besterik adierazten ez badu, Getxoko Udalak **ofizioz** ikuskatuko du eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin. Eskatzaileak kontsulta horien aurka dagoela adierazten badu, eskaera elektronikoa erantsi beharko ditu zorrik-ez hori ziurtatzen duten/dituzten dokumentua/k.

Eskatzaileei gogorarazi nahi diegu kaleko jardueraren bat egin ahal izateko **ESPARRU PUBLIKOETAN EKITALDIAK EGITEKO** eskaera erregistratu eta Babes Zibilera bidali behar dutela. Hala badagokio, dirulaguntza ematea ekitaldia egiteko baimen ematearen menpekoa izango da, hau da, ekitaldia egiteko baimena jasotzen badu jasoko du dirulaguntza, bestela ez.

Getxoko Udalak baimendutako jarduerari emandako laguntzak ez du haren antolatzailea denik esan nahi. Hortaz, Getxoko Udala salbuetsirik geratuko da erantzukizun zibileko ondare erreklamaziorik balego, diruz lagundutako jarduera(k) edo ekitaldia(k) modu normalean edo ez normalean egitearen ondorioz. Baleude, SGAeri dagozkion gastuak, beti ere, antolatzaileen kontura izango dira.



EPEAK

3. ildoak: auzoetako Olentzeroak	Eskaerak aurkezteko azken eguna 2024ko urriaren 16a izango da.
----------------------------------	---

5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

3. ildoak	Olentzeroak:	
	• Algortako Olentzeroa	21.472,5 €
	• Areetako Olentzeroa	8.032,50 €
	• Andra Mariko Olentzeroa	6.825,00 €
	• Romoko Olentzeroa	3.202,50 €
	• Neguriko Olentzeroa	1.968,75 €
		1.443,75 €

Dirulaguntzak lehia bidez, hau da, aurkeztutako eskabideak alderatuz emango dira, 7. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta.

7.- BALORATZEKO IRIZPIDEAK

OLENTZERO

Eskaerak ebazteko, ondorengo balorazio-irizpideak hartuko dira kontuan:

- Eskatzaileak jarduera antolatzen daukan esperientzia: 5 urte edo gehiago 30 puntu.
- Eskatzaileak antzeko gertaera edo jaiak antolatzen duen esperientzia: 5 puntu.
 - Zenbat eta nolako jarduerak diren.
 - Jai horiek jendetsuak izan dira (200 pertsonatik gora).
- Aurkeztutako egitaraua: 25 puntu. Honako hauek hartuko dira kontuan:
 - Egitarauak jasotzen dituen jardueren kalitatea.
 - Familia osoarentzako bideratuak izatea.
 - Ekintzen aniztasuna eta kopurua.
 - Berritzaileak izatea.
- Euskarari eta euskararen erabilerari, aurkeztutako egitarauan jasotzen diren ekintzek dakarkioten onura: 30 puntu.
 - Udalak onartu duen Euskara Planak, ESEPe jasotzen dituen helburuekin bat dator?
 - Ume eta gazteentzako ekintzak euskaraz dira?
 - Euskal kulturari onura dakarkio?

8.- DIRULAGUNTZA ZURITZEA

2025eko otsailaren 15era (barne), dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da:

8.1.- MEMORIA

Ildo bakoitzean garatu diren ekimenei buruzko memoria aurkeztu beharko da: parte hartzea, iraupena, antolatzaileak egiten duen balorazioa.

8.2.- BALANTZEA

Jardueraren **gastuen eta diru-sarreraren balantze zehatza**. Jarduera burutzeko beste erakunde publiko edo pribaturen baten dirulaguntza ere jaso baldin bada, gastuen eta sarreraren balantzean zehatza

8.3.- GASTUEN ZURIKETA

8.3.1. Gastuen zerranda



Lagundutako jarduera burutzean egon diren **gastu eta sarreren zerrenda**. Zerrenda honek ondorengoak jasoko ditu: hornitzailea, kontzeptua, kopurua, fakturaren data eta hala badagokio, ordainketa data.

Zerrenda honetan diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren %100 agertu behar da.

8.3.2. Fakturak

Aurreko puntuan adierazitako gastuen zerrendaz gain, **jasotako diru kopuruaren %10 gutxienez suposatzen duten fakturak aurkeztu beharko dira** (fakturak edo bestelako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan froga-balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak). Fakturak diruz lagundutako jarduerarekin lotura behar dute izan eta ez dira sartzen pertsonal gastuak.

Euskara Zerbitzuak hala baderitzo, edozein momentutan eskatu ahal izango du jarduerarekin lotutako beste edozein egiaztagiri.

8.4.- MATERIALA

Dirulaguntza jaso duen jarduerarako publizitatea egin bada: esku-orri, kartel... guztien ale bana.

Justifikatzeko aurkeztutako agiri guztiek dirulaguntza emandako ekitaldi ekonomikoko data izango dute.

9.- IZAPIDEA ETA EBAZPENA

- **Deialdi** honetan jasotako laguntzak emateko organo instruktoea Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua izango da.
- Aurreko paragrafoan aipaturiko organo instruktoeak proposatuta, ebazpena emateko eskumena Alkateak izango du, beti ere ebazpen horren guztizko kopuruak 30.000 euroak gainditzen ez baditu; hala balitz, ebazpena Tokiko Gobernu Batzak emango du.
- Dirulaguntza emateko proposamena organo kolegiatu batek egingo dio Alkateari. Organo Kolegiatua osatzen duten kideak, 2022ko apirilaren 11ko 1536/2022 dekretuak aldatu zuen ekainaren 26ko 3235/2019 dekretuak jasotzen dituenak dira.
- Ebazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 legearen 21.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntzaren eskaera ukatuztat hartuko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
- **Deialdi** honetan araututako laguntzak emateko edota pertsona edo erakunde onuradunei ordaintzeko, itzultzeko edozein prozedura edo edozein zehapen-prozedura amaitu beharko da; hots, Getxoko Udalak emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidean dagoena.



10.- ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzak jasotako pertsonak edo erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Emandako dirulaguntza garaiz eta forman justifikatu beharra.
2. Aurreikusitako proiektua edo programa egitearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztiak bere gain hartzea.
3. Euskara Zerbitzuak egokitzat jotz gero, emandako dirulaguntza aplikatzen den egiaztatzeko eta horren segimendua egiteko jarduerak burutzea.
4. Publizitatean eta komunikatzeko ekintzetan adieraztea proiektuak, egitarauak edota jarduerak Getxoko Udalaren laguntza izan duela.
5. Proiektuaren, programaren edo jardueraren publizitatean eta komunikazioa gutxienez euskaraz izatea. Ele bietara bada, lehenetsia eman behar zaio euskarari tamaina edo kokapenean.
6. Proiektuaren, programaren edo jardueraren publizitatean eta komunikazioan hizkuntza eta irudi sexistak ez erabiltzea.
7. Erakunde kudeatzaileari dagokiona ordaintzea, eskubideak erakunde horrek kudeatzen dituen kasuan, katalogoko obrak erabiltzearen truke.

11.- HARTZAILEAREN EKIMENEZ EGINDAKO ITZULKETA

Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua xedatutakoaren arabera, onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Udalak emandako dirulaguntza, Udalak eskatu gabe.

Horretarako, lehenengo, onuradunak berak Udalaren dirulaguntza itzultzeko eskabidea egingo du, zergatiaren berri emanez. Onuradunak berak eskatuta dirulaguntza itzultzeko, ordainketa-gutun/errezibo bat erabiliko da. Ordainketa-gutun/errezibo hori Udalak luzatuko dio onuradunari.

12.- DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean dagoen datu babesen gaineko araudiaren arabera, jakinarazten da eskarian agertzen diren datuak "Euskara Sustatzeko Dirulaguntzak" izeneko tratamenduan sartuko direla. Tratamendu honen arduraduna Getxoko Udala da eta helburua, Getxoko udalerrian euskara sustatzeko dirulaguntzak kudeatzea du.

Titularrak eskubidea du sartzeko eta bere datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere; horretarako, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus helbidera idatzi behar du, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat gehituta, edo Udalaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen izapide elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak.

13.- ZEHAPEN ARAUBIDEA

Urrapen eta isunen araubidea izango da Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluan ezarritakoa eta Euskal Herriko Herri Administrazioen Zehapen Ahalmenaren otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa, hala nola, dagozkien garapen araudietan eta 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran onartutako ordenantza (2022ko martxoaren 16ko 52 zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua).



14. INTEROPERABILITATEA

Getxoko Udalak, elkarregingarritasunaren bidez, beharrezkoak diren kontsultak egingo ditu administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruz, bai eta dirulaguntza hauen administrazio-izapiderako beharrezkoa den beste edozeini buruz ere.

Interesduna laguntzak kudeatzeko behar diren datuak kontsultatzearen aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu behar diren datu eta dokumentuak.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da: artikulua horretan aitortzen da herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, aplikatzekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administrazioari emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek lagundu egin behar dute datu-trukean, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.

15. ARGITALPENA

Oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta deialdia Dirulaguntzei buruzko Datu Base Nazionalen erregistratuko da. Horrez gain, oinarriak eta deialdia Udalaren webgunean ere argitaratuko dira. Deialdia, BAOan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honetan aipatu ez denari dagokionez, Dirulaguntzak Ematea Araupetzen duen Udal Ordenantza eta azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra aplikatuko dira eta baita aplikatu ahal den gainontzeko araudi sektorial edo garapenerakoa.



Getxo

birer eviniz

